# Euskal AEko BPGk urte arteko %3,1eko hazkundea 2018ko lehen hiruhilekoan

## *Enplegua %2,2 gehitu urte artean*

Euskal AEko Barne Produktu Gordinak (BPG) %3,1eko hazkundea izan du 2018ko lehen hiruhilekoan urte artean, urtaro- eta egutegi-eraginik gabe, Eustaten aurrerapen-datuen arabera. 2017ko laugarren hiruhileko hazkundearen aldean, hamarren bat gehiago.

Aurreko hiruhilekoaren aldean %0,8ko hazkundea, 2017ko laugarren hiruhilekoan baino hamarren bat gainetik.



2018ko lehen hiruhileko urte arteko eta hiru hileko arteko hazkundeak industriari, eraikuntzari eta zerbitzuei esker izan dira; denetan goraka aurreko aldietako hazkundeak.

Enplegua, dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuetan, %2,2 gehitu da aurreko urteko hiruhileko beraren aldean; hazkundea azken hiru hilekoetakoak baino handiagoa da. Hiruhileko artean %0,5eko hazkundea.

***Informazio gehiago.***
*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*
*Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*
*Prentsa zerbitzua: serviciopprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62*